

E-N-P-A-P----- -----GOING PUBLIC----- -----TELLING IT-----AS IT IS?-----

Going Public - Telling it as it is?

Praktika artistiko eta arte publikoaren inguruko sinposioa
Antolatzailea: ENPAP (European Network of Public Art Producers)

2012ko martxoaren 22, 23 eta 24

BizBAK UPV/EHU eta ARTIUM (Euskal Autonomia Erkidegoa),

KONTAKTUA

Argibide gehiago hemen: WWW.E-N-P-A-P.NET

Harremanetarako pertsona: Itziar Zorita itziar@consonni.org

Mugikorra: +34 659807571

Bulegokoa: +34 944078265

Prentsaurrekoa: 2012ko martxoaren 21ean, asteazkena, 11.30etan. *Bilboko Berreginen Museoa* (San Frantzisko 14, Bilbo)

Komunikabieentzako pase berezia: Itziar Barrioren proiektua (Arriaga, martxoaren 22, 12h eta 16h) eta Alex Reynolds-en proiektua (Zabalbide 34, martxoaren 22, 13h eta 19h)

Going Public - Telling it as it is? hiru eguneko sinposioa da, eta *storytelling* delakoa (hots, ipuin-kontakteta) aztertzea du helburu, arte publikoko lanak ekoitzi eta jasotzeko modu gisa hartuta. Hitzaldi performatiboak eskainiko ditu, eta Bilbon eta Bilboko hedabideetan kokatutako ekoizpen berriko zenbait proiektu artistiko ere bai. Sinposioaren barruan, sare gisako topaketa bat ere antolatuko da Gasteizen, gonbidatutako sektoreko profesionalak biltzeko.

Espazio publikoan, arte-proiektu baten prestaketa, esanahia eta esperientzia osatzen duten alderdi asko ezin dira aurreikusi. Ikuslegoak, espezifikoa zein ustekabekoa izan, arte publikoko proiektuekin dituen topaketen inguruan lehen eta bigarren eskuko lekukotzak ematen ditu, eta horien bitartez lanak berezko bizi-tza garatzen du. *Storytellinga* beti izan da funtsezko elementua, eta artea espazio publikoetan sortu eta interpretatzeko metodologia gisa erabil daiteke; metodologia horretan, etengabeko elkarrizketa gertatzen da testuinguruarekin, eta etengabe aldatzen den tokian tokiko historiarekin. Kontakizunak ekoizpen-modu bat dira, eta jasotzeko modua ere bai.

Hitzaldi performatiboaren bitartez, *Going Public - Telling it as it is?* sinposioan kontakizunak eta *storytellinga* aztertuko dira, eremu publikoetako artearekiko ikuspegi metodologiko modura. Artelan publikoarekin gertatzen den topaketaren inguruan istorio bat kontatuko dute artistek. Bestalde, beste artista batzuk gonbidatuko dira beren istorioa Bilbon koka dezaten. Bilbo hiria ez da bakarrik bere espazio- eta gizarte-ikuspegitik behatuko, baizik eta ikuspegi sinbolikoago batetik; hain zuzen ere, ikuspegi horrek marka bat bihurtzen du Bilbo, eredu bat, irudi bat, efektu bat, eta abar. Espazio publikoaren nozioa konplexuago egiteko, eta eremu publiko hori eraikitzen duten eragiketak azalertzeko, hiria toki fisiko gisa agertzen da, espazio sozial gisa, eta eraikuntza mediatiko gisa.

ENPAP Caucus saio itxi bat da, sareko fase pilotua erakusten duena; fase horretan, sarearen eratzailerek egindako ikerketa konparatiboaren saioak egin zituzten. Fase pilotu horretan, jarduera artistikoan eta eremu publikoan eskarmentua duten gonbidatutako beste elkarteekin gauza ugari

E-N-P-A-P----- -----GOING PUBLIC----- -----TELLING IT-----AS IT IS?-----

partekatu eta ebaluatu da. Bilera horretan, bestalde, ENPAP sarearen etorkizuneko osaeraz eta haren egokitasun eta jarraikortasunaz ere hitz egingo da.

Inskripzio-kuota: 40 € (ikasleek, 18 urtetik beherakoek eta langabetuek: 20 €)
Inskripzioan haxe sartzen da: martxoaren 22 eta 23ko sinposioa + sinposioko eskuliburua + kafea, bazkaria, afaria + jaia

ENPAP - European Network of Public Art Producers 2009an sortu zen, eta arte publikoaren nozioa hedatzearen aldeko sei elkarte biltzen ditu. Arte publikoaren komisariotzan jarrera kritikoa bultzatzea du helburu eta, horretarako, ezagutzak partekatzen ditu, lanerako metodo berriak garatu, ekoizpen-modu berrietarako hiztegi bateratua ezartzen du, eta jendaurrean konprometitzen da arte garaikidearekin.

ENPAPen laguntzaile dira ondoko hauek: EBko Kultur Programa, Fundación 2012 Fundazioa dentro del '2012 Euskadi, Año de las Culturas por la Paz y la Libertad', The Foundation for the Culture of the Future, 2012 Euskadi, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala. Hauek ere parte hartuko dute: Donostia 2016, Stockholm Arts Council, The Swedish Arts Council, SKOR | Foundation Art and Public Domain eta Romanian Cultural Institute.

Bilboko eta Gasteizko programa erakunde hauen laguntzari esker antolatu ahal izan da: BizBAK UPV/EHU, ARTIUM museoa, Berreginen Museoa (Bilbo), Arriaga Antzokia, Berria, El Correo eta Euskal Irrati Telebista (EITB).



E-N-P-A-P----- -----GOING PUBLIC----- -----TELLING IT-----AS IT IS?-----

SINPOSIUMEN KONGRAMA

Martxoaren 22a: kontakizuna hirian kokatzea, Bilbon.

Martha Rosler (AEB) eta Phil Collins agertuko dira egunkari lokaletan (El correo eta BERRIA).

Arriaga Plaza eta Antzokia sarrera doan

11:00-16:30 "We could have had it all", Itziar Barrio (ES/USA)

12:00 eta 16:00 Proiektzio bereziak, eta Itziar Barrio artista bera ere (ES/AEB) bertan izango da.

Erabiltzen ez den bideoklub baten erakusleioa (Zabalbide, 34) sarrera doan

13:00 eta 19:00 "Boom", Alex Reynolds (UK/ES)

Berreginen Museoa (San Frantzisko, 14) sarrera doan

20:30 Ongi-eterri afaria

22:00 María Ruido-ren (ES) ElectroClass filmaren proiektzioa, ETB3-ren bitartez.

Martxoaren 23a, hitzaldi performatiboak sarrera Inskripzio bitartez

BizBAK UPV/EHU, (Abandoibarra etorbidea, 3) Bilbo

11.30-12:00 Izen-ematea, kafea eta pintxoak

12:00-12.30 Asier Mendizabal (ES)

12.30-13:00 Falke Pisano (NL) eta Francesco Pedraglio (IT)

13.00-13:30 Olof Olsson (SE)

13:30-15:00 Bazkaria

15:30-16:00 Goldin + Senneby (Suedia)

16:30-17:00 Patricia Esquivias (VE/ES)

17:00-17:30 Asli Cavusoglu (TR)

Kontakizun hedatuak, sarrera Inskripzio bitartez edo salgai (10€) ANTI- Liburudenda (Dos de mayo, 2) SerieB (Lotería, 2) eta consonni-n (Conde Mirasol 13)

Pabellón6 ZAWP (Deustuko Erribera 47) Bilbo

20:00 Sinposioko hizlari eta entzuleentzako afaria

21:00 Jeletan-en *performancea* (ES)

21:30 OJoren *performancea* (USA)

22:30 Institut Fatima-ren kontzertua (GE/ES)

23:30 Begoña + La Jawara Dj-ak (ES)

Martxoaren 24a, ENPAP Caucus, etorkizuneko sareari buruzko eztabaida

ARTIUM museoa, Gasteiz . sarrera gonbidapen bitartez

Stella d'Ailly (Mossutställningar, SE), Alicia Miller (ikusmen-arteetan aditua, UK), Claire Doherty (Situations, UK) eta Tati Freeke-Suwarganda (SKOR | Foundation for Art and Public Domain, NL).

Eremu publikoko artearen alorrean lanean ari diren profesional gonbidatuentzako saio itxia.

Argibide gehiagorako eta matrikula egiteko: www.E-N-P-A-P.net

E-N-P-A-P----- -----GOING PUBLIC----- -----TELLING IT-----AS IT IS?-----

ENPAPeko kideak:

BAC-Baltic Art Center, Visby/ Suedia

consonni, Bilbo/ Espainia

Mossutställningar, Stockholm/ Suedia

Situations, University of the West of England, Bristol/ Erresuma Batua

SKOR | Foundation for Art and Public Domain, Amsterdam/Herbehereak

Vector Association, Iasi/Errumania

BAC- Baltic Art Center ekoizpen-bulego eta laneko toki bat da, artista, komisario, eta arte garaikideko idazleentzako. Antolakuntza malgua du, eta hainbat ekoizpen- eta erresidentzia-programa gauzatzen ditu. Horretarako, prozesu artistikoa hartzen du beti bere jardueren ardatz gisa. BACek ekoizpen artistikorako ekonomia- eta espazio-esparru finkoa proposatu ordez, artista bakoitzari bere lan-prozesurako baldintzak ezar ditzan proposatu zaio, antolakuntzarekiko elkarriketaren bitartez. Azkenaldian, BACek ekoizpenak egin ditu Victor Alimpiev eta Ana Torf-ekin, eta berrikitan, Fiona Tan-ekin. (www.balticartcenter.com)

consonni arte-proiektuen ekoizpen-etxea da eta Bilbon du egoitza. 1997tik aurrera, artistei gonbita egin die erakusketa-espazioetan erakusgai diren objektu artistikoak ez diren proiektuak gara ditzaten. Matthieu Laurette, Hinrich Sachs, Andrea Fraser, Sergio Prego, Ibon Aranberri, Itziar Okariz, Saioa Olmo, Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum, besteak beste, proiektuak garatzen ari dira consonni-rekin. Consonnik lanabesak hartzen ditu mundu garaikidetik, era guztietako formatuetan arte-proiektuak ekoizteko, eta bide batez, inguruan duen gizartea irauli, kritikatu edo besterik gabe, analizatzeko. (www.consonni.org)

Mossutställningar elkarteak aukerak eskaintzen ditu ohiko erakunde-esparrutik kanpo arte-ekoizpenak egiteko, eta artearen, ikuslegoaren eta tokiaren artean ustekabeko topaketak ahalbidetzeko. 2009an, Mossutställningarrek bi sare jarri zituen martxan: the Initiative to Create a European Network of Public Art Producers (ENPAP) eta Nordic Network of Public Art Producers, bakoitzak bere programa zuela. (www.mossutstallningar.com)

Situations Bristol, Erresuma Batuan dagoen University of the West of England unibertsitateko ikusmen-artearen komisariotza-programa da, eta nazioarteko ospea du mundu mailako komisariotza eta ikerkuntzaren alorrean. Programak ohiko arte-testuinguruetatik kanpo dauden artelan iraultzaile eta nabarmenen komisariotza lantzen du, hala nola Heather eta Ivan Morison-en One Day Sculpture, The Black Cloud, eta bestalde, artelan egonkorak ere bai, besteak beste, Ruth Claxton-en And My Eyes Danced, Wonders of Weston osatzen duena. Hasiera-hasieratik, ohiko komisariotza-agentzia baten anbizioa eta ikerkuntza-zentro akademiko baten zorrotasun kritikoa elkartzea zen programaren oinarria. Azken hiru urteotan, ikerkuntza eta argitalpen aitzindariak argitaratu ditugu, hala nola Locating the Producers: Durational Approaches to Public Art (Valiz), Situation (MIT Press/Whitechapel Art Gallery), baita arte-sorta garaikideen dokumentu zatiak ere; komisariotza-estrategiak ekoitzi ditugu, besteak beste Slow Space, Bjorvika Oslo Harbour-entzat, eta ixia, the UK national think tank for public art elkartearekin lanbide-garapenerako mintegiak antolatu ditugu, artelan publikoen ekoizpenari buruz.

2012an, Situations-ek Alex Hartley-ren Nowhereisland lana aurkeztuko du; Artikoan sortutako eskala handiko irla bat da, Ingalaterrako hego-mendebaldean zehar bidaiatuko duena. Portuz

E-N-P-A-P----- -----GOING PUBLIC----- -----TELLING IT-----AS IT IS?-----

portu joango da, “irla nazioan” batetik bestera ibiliz. Argibide gehiago lortu eta nazio berri horretako herritar egiteko, ikus hauxe: www.nowhereisland.org. (www.situations.org.uk)

SKOR | Foundation for Art and Public Domain nazioartean lan egiten duen arte-erakundea da, eta Amsterdamen du egoitza. Eremu publikoaren inguruko arte-proiektuak aholkatu, garatu eta sortzen ditu. SKORek bitartekari-lana egiten du, artista, komisario eta ikuslego orokorraren artean. Aliantzak eta parteneriatuak sortzen ditu arte-erakunde eta erakunde publiko zein pribatuekin, hala nola udalerriekin, gobernu zentralekin eta probintziakoekin, osasun- eta hezkuntza-erakundeekin, proiektu-garatzailleekin eta arkitektura-estudioekin. Proiektuen bitartez, SKORek erreakzionatu egiten du gizarteko aldaketa soziopolitikoaren aurrean, eta arte garaikidean, hiri-diseinuan eta paisaiaren arkitekturan gertatzen diren garapenen aurrean. Programa publikoaren bitartez, proiektuetarako testuingurua eskaintzen du, eta artearen eta eremu publikoaren inguruan egun dauden eztabaidak konektatzen ahalegintzen da. (www.skor.nl).

Vector irabazi asmo gabeko elkarte da, artista, arte-kritikari eta komisarioei zuzendua, eta lasi-n du egoitza, Errumanian. 1997az geroztik, Vector-ek Periferic Biennial ekoitzi du, Vector Magazine argitaratu du, proiektu publikoetako komisario izan da, eta erresidentzia-programetako anfitrioi ere bai. Gainera, Vector Association-ek lasi hiria bera bultzatzen du prozesuko parte-hartzaile izan dadin; izan ere, artista bisitariei gonbita egiten die hiria lanerako ekoizpen-iturri gisa erabil dezaten. Iaztik, Vector-ek lanerako kanpo-metodologia bat jarri du martxan, eta hari esker, Critical Point erakusketa-proiektua gauzatu da. Halaber, Vector-en ikerketa kritiko bat argitaratu ahal izan da Frieze Projects-en esparruan, hain zuzen ere, Frieze Art Fair 2010en (London, Erresuma Batua). Azkenik, proiektuaren bigarren kapitulua ere ezagutzera eman da Western Front-en (Vancouver BC). (www.periferic.org)